

OPE
2007



2007ko
LEP

KODEA Lanpostua/k:

A-5019

SOZIOLOGOA, G.T.

1. ariketa. 2. proba

GALDERAK

Denbora, gehienez: 120 min.

EREDUA:

C

- Ez zabaldu esan arte.
- Proba bukatzean inprimaki hau zeurekin eraman dezakezu.
- Kontuan izan galdera bakoitzaren balioa, eman bazaio.
- Adi egon, identifikazio pertsonalerako txartela jaso diezazuten.
- Ez ahaztu ordezkagiria hartzea (irakurketa optikorako inprimakiaren beheko ezkerreko zatia).
- Adi egon, batera grapa ditzaten irakurketa optikorako orria, azaleko inprimakia eta zure erantzun-orriak.

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

Galdera	Balioa	Galderaren idazkuntza
1	2,00	Hauxe idatzi zuten soziologo batzuek: "Bazterketa kontzeptuaren ideia nagusia gizarte osoaren baitan ez parte hartzea da"; eta Europar Batasunak honela definitzen du bazterketa: "laguntzarik gabe gizarte eskubideez baliatu ezina". Adierazi gaur egun eta hemen bazterketa arriskuan dauden pertsona eta taldeak egoera horretan egotearen gutxienez hiru arrazoi.
2	1,00	Gerta liteke ageriko hainbat aldagaitan ikusitako bariantza elementu gutxiagorekin azaldu behar izatea, eta estatistika-prozedura baten bitartez egiten da hori. Nola deitzen da?
3	1,00	Nork idatzi zuen honako hau?: "Agenteak edo agenteek berek subjektiboki esanguratsutat hartzen duten giza portaera jotzen da ekintzatzat, hala den neurrian. Portaera hori barnekoa edo kanpokoak izan liteke, eta izan daiteke agenteak zerbait egitea, egitetik abstenitzea edo egin diezaiotela uztea. Ekintza sozialtzat ulertzen da agenteak edo agenteek aitortzen dioten esangurak beste pertsona baten edo batzuen portaerarekiko erlazioa dakarren portaera, zeinetan harreman horrek erabakitzen baitu harreman horren jokamoldea".
4	1,00	Eraikuntza kontzeptual nagusia, demografian, bai XX. mendean, bai gaur egun, nola deitzen da?
5	1,00	Liburu hauek: a) Metodo soziologikoaren arauak b) Etika protestantea eta kapitalismoaren espiritua c) Kapitala d) Ekintza sozialaren egitura e) Espiritua, pertsona eta gizartea f) Pertsonaren aurkezpena eguneroko bizitzan g) Gizartearen sorrera: egituraketaren teoriarako oinarriak h) Arriskuaren gizartea i) Irudimen soziala j) Erreprodukzioa egile hauek idatzi zituzten: 1-Talcott Parsons 2-Emile Durkheim 3-Erving Goffman 4-C. Marx 5-Ulrich Beck 6-M. Weber 7-Charles Wright Mills 8-Anthony Giddens 9-George H. Mead 10-Pierre-Félix Bourdieu Zerrenda itzazu zenbaki- eta alfabeto-kodeak, pareak komen bitartez bereiziz.
6	1	Dendograma grafiko mota bat da, estatistika analisirako prozedura zehatz batean erabili ohi dena. Zeinetan?
7	1	Zeren oinarrizko paradigmak finkatu zituen T. H. Marshall teorikoak?

8	1	XX. mendearen azken hamarkadetan eta gaur egun gizartea karakterizatzeko hiru kontzepzio ikusi ditugu: gizarte postindustrial, gizarte postmodernoa eta gizarte erreflexiboa. Adierazi hiru egile, karakterizazio bakoitzeko bana.
9	1	Nork idatzi zuen honako hau?: “Inguruarekiko erlazioan –beste sistema sozial batzuk barne– autosufizientzia mailarik handia izateak karakterizatzen duen sistema sozial motatzat definitzen dugu gizartea.”
10	1	Arazo bati ikerketa sozial baten bitartez erantzuteak atributu espazio bat eratzeraz darama, eta horretarako beharrezkoa da... Zein da beharrezko den lehen urratsa?
11	2	Zehaztu EAEn pobrezia eta gizarte bazterkeriaren kontra borrokatzeko dauden politikak eta tresnak.
12	1	Nork idatzi zuen honako hau?: “Beren bizitzako gizarte ekoizpenean gizakiek harreman jakin batzuk ezartzen dituzte, beharrezkoak eta beren borondatek independenteak, beren ekoizpen indar materialen garapen fase jakin bati dagozkion ekoizpen harremanak. Ekoizpen harreman multzo horrek gizartearen egitura ekonomikoa eratzen du, superegitura juridiko eta politikoa altxatzen deneko benetako oinarria, zeini baitagozkio kontzientzia sozialaren forma jakin batzuk.”
13	1	“Alfa (Cronbach)” estatistika eredu bat da. Zertarako erabiltzen da?
14	2	Hauxe idatzi zuen soziologo batek: “Balioa ekoizten duten baliabideetarako irismena kontrolatzen duten pertsonen premiazko antolakuntza-arazoak kategoria bereizketen bitartez konpontzen dituztelako sortzen da kategorien arteko ezberdintasun iraunkorra. Binakako kategoria desberdinak aurkitzen ditugu behin eta berriro.” Aipatu gutxienez hiru kategoria pare, gaur eta hemen ezberdintasuna adierazten dutenak.
15	1	Lanaren banaketak ez badu elkartasuna sortzen, organoen harremanak araututa ez daudela esan nahi du, anomia egoeran daudela. Nork idatzi zuen hori?
16	1	Korrespondentzien analisia: Aplikatzeko deneko datuen izaera. Korrespondentzien analisia aplikatzeko deneko harremanen forma estatistikoa. Korrespondentzien analisia egiten deneko oinarritzko neurria.
17	2	Hauxe idatzi zuen soziologo batek: “Bizitzaren konfigurazio instituzional horiek... zuzenean kateatzen dira gizakien bizitzaren faseekin: erakunde xedapenak eta esku hartzeak, aldi berean, inplizituki, giza bizitzaren gaineko xedapenak eta esku hartzeak dira”. Adierazi banakoaren bizitzako hiru puntu funtsezko, konfigurazio horiek islatzen dituztenak.
18	1	Antropologo ospetsu batek dio giza espeziearen debeku unibertsal batean oinarriturik arautzen dituztela ahaidetasun egiturek familien aliantzak. Zein da debeku hori, eta zein da antropologoa?
19	1	Zein soziologo da ezagun komunitatearen (<i>gemeinschaft</i>) eta gizartearen (<i>gesellschaft</i>) arteko bereizketagatik?
20	1	Deskriba ezazu udalaren gizarte zerbitzuen antolakuntza-egitura.
21	1	Zer dira luzera-datuak, demografian?
22	2	Adierazi kulturen eta bizi-baldintzetan gertatu diren egitura-aldakuntzak, sexu estamentuen rolen gizarte hierarkizazioan egungo aldaketak ekarri dituztenak. (gehenez bost adieraz ditzakezu)

23	2	Identifika ezazu gure gizartean esanguratsu den gizarte talderen bat, zeinen kultur ezaugarriak neurri handi batean ahaidetasun harremanetan oinarrituta dauden (edo horiek paper handia jokatzen duten).
24	1	Aipa itzazu oinarrizko hiru metodologia kualitatibo.
25	2	Hauxe idatzi zuen soziologo batek: “Gizonek eta emakumeek izate ekonomikoki askea eduki behar duten eta nahi duten lekuan, hori ezin da gertatu ez familia txikiaren rol banaketa tradizionalan, ez lan profesionalaren, zuzenbide sozialaren, hiri plangintzaren, eskolen eta besteren egitura instituzionalan, non, hain zuzen ere, familia txikiaren irudi tradizionala auresuposatzen baita, oinarria sexu estamentuetan dutelarik.” Aipatu gizonen eta emakumeen izate ekonomikoki askearen mesede izango den egitura profesionalen aldakuntzarako politika posible bat adierazten duen gaur egungo eslogan bat.
26	2	Hauxe idatzi zuen soziologo batek: “Pertinentzia ugariko, hau da, gizarte eremu desberdinetan moldatzen diren gizabanakoek osatzen dute gaur egun gizartea. Gizabanakoak, benetan edo birtualki, unibertso sozial desberdinetan barrena mugitzen dira. Eremuak eskala aldakorrekoak dira (lokaletik globalera), eta, gutxi edo gehiago, irekiak. Eta gizabanakoek <i>code switching</i> bat egiten dute, hau da, malabarismoak egiten saiatzen dira kode desberdinekin, batetik bestera igaro ahal izateko.” Modu batean edo bestean hainbat egilek egindako deskribapen horrek, ezinbestean, egungo gizartearen bizpahiru arazo nagusi aurkeztera garamatza. Adieraz itzazu.
27	2	Defini ezazu zer ulertzen duzun “migrazioa katean” esaten delarik.
28	2	Estatuaren eta herritarren arteko harremanei buruzko planteamendu berriek bi aldeek beren gain rol diferenteak hartzea dakarte berekin. Adieraziko al zenuke baten bat?
29	2	Ba al dago diferentziarik “mugimendu sozialak” eta “hirugarren sektorea” kontzeptuen artean? Adierazi gutxienez bat.